

Pazientzia krisian

Saioa Iraola

Pazientzia ez dago modan eta aldiz badagoela krisian esango nuke. Pazientziak berekin dakartza, batez ere: patxada eta itxarotea. Eta gaur egun dena behar da izan atzorako, ez bihar-ko eta ezta etzirako ere. Berehalakotasunaren gurpilean itota bizi gara, kapitalismoaren erritmo basatiaren eta kontsumoaren menera. Baina pazientzia ez dute supermerkatuetan saltzen, edo Interneten. Bestela honezkero telepazientzia kontsumitzaileak ginateke.

Antsietatea sortzen diguten hausnarketa prozesu kolektiboak egiten ditugu; hanka hautsi berrian sendagileak hiru hilabeteko errekupeazioa proposatzen digunean, zera galdetzen diogu: “eta ez dago ezer azkartze-ko?”, edo jatetxe batean eseri eta bost minututan jasotzen ez bagaituzte zutitu eta alde egiten dugu haserre; auto pilaketa batean bai edo bai bertan egon beharra dugu-

netan kotxeetako bozinak lehertzen ditugu. Eta azken denboretako “garapenak” berehalakotasunaren errekorrak hautsi ditu: Whatsappeko mezu bat bidaltzen dugunean eta *tick* urdin bikoitza egin arren erantzuten ez digutenean, segundoetara, erantzuna pentsatu eta idazteko ia denborarik ematen ez duenetan ere, sentitzen dugun kontrol nahi eta antsietatea. Erabat gainean daramatzagun *tick* urdin bikoitzen inbasioa gauzak pazientziaz hartzea zailtzen ari zaigulakoan nago. Aldiz, pazientziaren ispiluak natur baliabideetan topa genitzake, milurteko haritzetan, kasu. Milurteko haritzek eta pagoz josia egon izan da gure herria, baina ingurugiroa ere pazientziaz hustu dugu. Pinu eta eukalipto edota abiadura handiko trenaz ordezkatzuz, betiere, efizientziaren ize- nean.

Hezten gara erantzun gaitasun azkarre- tan eta denbora luzeak eta motzak batera-

tzeko zailtasunetan. Pauso motzen aldera noski, adierazpen argiena *ya!* izanik. Premi- sa honekin eraikitzen gara subjektu gisa jendartean.

Urgentziazko zapalkuntza egoerek erantzun azkarrak eskatzen badituzte ere, denboraren bizipen modernoaren deserai- kuntza proposatu eta pazientziaren apolo- gia egin nahiko nuke.

Patxada muskulu bat dela entzun nion behin Eider Iruretagoiena psikologoari eta landu egin litekeela; gustatu zitzaidan. Gor- putzeko gure muskuluak eta giharrak gim- nasioan, mendian edo korrika egitean lan- tzen ditugun moduan.

Badut hurrengo erronka, pazientzia lan- tzeko egingo dudana lehen ariketa izan lite- ke; hurrengoan autobusa berandu datorre- nean, zigarro bat antsietatez piztu eta bide batez mugikorreko Whatsappen sartu be- harrean, besterik gabe itxarotea. •

Zuhaitz bat, liburu bat...

Udaberriko kolore berdeetatik (Raimonen “Tots els colors del vert” haietatik) miresgarriena pagoaren hostoena da. Bizitzan gutxienez zuhaitz bat sartu behar dela- eta, nik mila pago pasa sartu nituen orain dozena bat urte (pasatu egin nin- tzen) eta maiatzean zehar tarte luzeak ematen ditut hosto delikatu horiei begi- ra, japoniarrak gerezi loreei bezalaxe, edertasunaren laburraz gogoeta egiten, sakerik edan gabe nire kasuan, dena esan behar bada.

Seme-alaben kasua ezberdina da. Haiei begira zaudela batzuetan izuak hartzen zaitu, hain zeureak diruditen imintzio bat edo keinu bat edo tonu edo esamolde bat atzeman diezulako, ezaugarri fisikoe- kin batean, noski, eta, beste batzuetan, arbasoren baten errainuak asaldatzen

baitzaitu haien aurpegiko tankeran edo begiradan edo ibiltzeko moduan, dagoe- neko ahaztua dugun gau urrun hartan haien mamuak oharkabean gure ohetik igaro bailiran. Ribeyrok gure artean hain aipatua den “Prosas apátridas” delakoan esaten du ume baten jaiotza bandaloen etorrera bezalakoa dela, bikote baten bizi- modua hankaz gora jartzen duelako. On- doren umeari ateratzen zaion hortza zuri erortzen zaizuna da, hazten den zentime- tro bakoitzeko egiten duzu zuk behera eta, gero eta beranduago bada ere, beren trepetak motxila batean gorde eta mun- dura ateratzen direnean zu etxetik alde egin zenuen egunarekin gogoratzen zara eta urruntzen ari diren bitartean bizitza- ren arrarotasunaz egiten duzu gogoeta.

Liburu baten kasua ere ez da lasai gel- ditzekoa. Horrek ere berarekin darama-

tza arbasoen arrastoak. Arretaz irakur- tzen jarriko baldin bagina, berehala ohartuko ginateke ideia bat halakori edo esamolde bat besteari nola hartu zeniz- kion, baina aldi berean zurea sentitzen duzu, agerian baititu zure mania, neura eta gabeziak.

Egunotan nobela bat kaleratzea egoki- tu zait eta bihotza uzurtu egin zait pix- ka bat, ume bat lehen aldiz ikastolara eramatea bezalatsu delako, hain iruditu baitzait dohakabea, badakidalako salma- haietan, erakusleihenetan eta dabilen le- kuan beste batzuek hartuko diotela au- rrea, bultza egingo diotela eta irakurle listoren batek akatsak ateratzen badizkio edo kritikoren batek kilimak egin, ez duela erantzuteko adorerik izango eta lurrera begira geratuko dela bekozkoare- kin. Eta pena pixka bat eman dit. •

Joxean Agirre